




2016ko URTARRILA **EUSKO BAROMETROA**

Euskal iritzi publikoari
buruzko aldizkako azterketa



2016ko URTARRILA BAROMETROA

Euskal iritzi publikoari buruzko
aldizkako azterketa



Fundación
IBERDROLA



AURKEZPENA

EUSKOBAROMETROA UPV/EHUko ikertalde baten izena da. **Francisco José Llera Ramo** irakasleak eta Politika eta Administrazio Zientziako katedradunak zuzentzen du, eta talde egonkor bat dauka, irakasle hauek osatutakoa: Arantxa Elizondo, Jonatan García, Patxi Juaristi, Rafael Leonisio, José M. Mata, Juantxo Mokoroa, Carmelo Moreno, Ainhoa Novo, Alberto de la Peña, Sergio Pérez y Alfredo Retortillo. Aldi berean, badira beste hainbat ikerlari eta irakasle parte hartu izan dutenak taldean, Eider Alkorta, Juan L. Arriaga, Yosune Iraola, Eva Martinez, Pablo San Martin, Beatriz Santisteban edo Raquel Sanz, besteak beste.

Proiektua 1995. urtean jarri zen martxan, 70eko hamarkadaz geroztik bildutako ikerketa esperientzia handia baliatuta. Helburu nagusia euskaldunen portaera politikoa eta iritzi publikoa aztertzea zen, eta horri erakundeen eta politika publikoen analisiari eta bilakaerari lotutako beste helburu batzuk batu zaizkio. Zentzu horretan, **EUSKOBAROMETRO TALDEA**ren jarduera oso emankorra izan da azken urteotan, eta horren erakusle dira bere iritzi barometroaren inkestek segidak izandako oihartzuna eta egindako azterketa ugari. Gaur egun, Euskobarometro Taldea kalitate zientifikoa aitortua daukan talde bat dela esan dezakegu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate sisteman ebaluatutako 200 ikertaldean rankingeko lehen postuetan dago, eta 2013an lehen lekuari eutsi zion Gizarte Zientzietako ikertaldean artean, bost urteren ondoren: www.ehu.es/euskobarometro.

- 1) Euskobarometro Taldearen lehen emaitza praktikoa datu-banku oparo bat sortzea izan da, sei hilabete behin egindako Euskobarometroa izeneko inkestetan eskuraturutako datuak oinarri hartuta. Hemendik gutxira, bildu eta sistematizatutako milioika datu horiek guztiak on-line kontsultatu eta tratatu ahal izango dira; oraingoz, ordea, horien aukeraketa esanguratsu bat eskain dezakegu. Datu horiek, 50.000tik gorako euskaldunek ia hiru hamarkadetan eskuzabaltasunez emandako erantzunen bidez eskuraturutakoak, gure webgunearen kontsulta daitezke **EUSKOBAROMETROAREN SERIE KRONOLOGIKOEN** atalean.
- 2) Euskobarometro Taldeak berak Euskobarometroaren udaberriko eta udazkeneko inkestek emaitza nagusiak ematen ditu aditzera hedabideetan eta iritzi publikoaren aurrean. Emaitzetan datu politikoak, sozialak eta ekonomikoak ematen ditu. Datu horiek guztiak aipatutako webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN AURKEZPENAK** atalean kontsulta daitezke.
- 3) Euskobarometro Taldeak Euskadirako hauteskunde estimazioak aurreratu ohi ditu, hauteskunde garaian gauden aldiro. Euskobarometro Taldeak euskal hauteskunde autonomikoen inguruan egindako aurreikuspen horiek **EUSKOBAROMETROAREN HAUTESKUNDE ESTIMAZIOAK** atalean kontsulta daitezke, webgune berean.
- 4) Era berean, Euskobarometro Taldeak beste era bateko ikerketa eta aholkularitza lanak egiten ditu aldi behin, analisi empirikoen, erakunde ebaluazioaren eta politika publikoen arloan, gehienbat. Jarduera horiek ikus daitezke ere **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN LANEN ZERRENDA** atalean, webgune berean.

- 5) Euskobarometro taldeak egindako lanen artean, bereziki aipatu behar dira generoari eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politikari buruzko ikerketak. Horren harira, taldeko irakasleak eta ikertzaileak hainbat ikerketa eta aholkularitza lan egiten ari dira erakundeekin batera, genero ikuspegia jardun publikoan txertatzeko eta sexuen arteko bazterkeriarekin amaitzeko aurrerapausoak emate aldera. Jarduera horiek guztiak ere webgune berean daude ikusgai, **GENERO IKERKETEN** atalean.
- 6) Ia hasieratik, **EUSKOBAROMETROAK** arreta berezia eskainiko dio Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi publikoaren ezagutzari, eta aitzindaria izan da arlo horretan. Hala, 1996. urteaz geroztik, **UPV/EHuren gizarte hedapenari** buruzko ikerketa argitaratu dugu urtero, eta lanaren azken edizioa gure webgunean kontsulta daiteke, errektoreak aldeztetik aurretik baimena emanda.
- 7) Euskobarometro Taldeak, 2000. urtean, Informazioaren Gizartearen Euskadiko Behatokia (IGEB) izeneko zerbitzu berria sortu zuen, informazioaren teknologia berriek euskal komunitatean duten eragina neurtzeko. Emaitzak kontsulta daitezke, halaber, webgune berean **INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN EUSKADIKO BEHATOKIA**-ren (IGEB) estekan.
- 8) Europar Batasuna indarrean sartu, erakundeak erreformatu, eta Europar Batasuna handitu denez eta nazioarteko egoera ere aldatu denez, gai horiekiko interesa areagotu dela ondorioztatu dugu, eta, horren harira, **EUROPAKO INTEGRAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO GIZARTEAREN EUSKAL BEHATOKIA (ENEB)** sortzearen beharra ikusi genuen. Behatoki horri buruzko informazioa ere orri horretan sartu genuen, 2001eko udazkeneko barometroaren ondoren.
- 9) 2001. urteaz geroztik, **EUSKOBAROMETROAK**, Bartzelonako, Granadako eta Santiagoko unibertsitate autonomoen (ICPS) eskualdeetako unibertsitate barometroekin batera, abian du **POLITIKA AUTONOMIKOAREN BEHATOKI (PAB)** berria, non beren galdetegien zati komunak partekatzen, alderatzen eta aldian behin zabaltzen diren. PABek webgune (www.opa151.com) eguneratu bat dauka, eta bertan eskualdeetako barometroetara sartzeko estekak ematen dira.
- 10) Horrez gain, azken urteotan, **EUSKOBAROMETRO TALDEAK** ikerketa nazionalen lerro berri bat ireki du, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Estatu Agentziarekin (ANECA) izandako lankidetzaren emaitza gisa, **Espainiarrak eta Unibertsitatea** izeneko azterketa aitzindaria egin zen. **Espainiako unibertsitate sistemaren irudi publikoari buruzko lehen inkesta nazional hori** aipatutako erakundeak argitaratu zuen 2004an, eta gure webgunean kontsulta daiteke. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (TBF) eta Ikerketa Soziologikoen Zentroarekin lankidetzan egindako lanaren emaitza izan zen, halaber, **espainiarrei eta terrorismoaren biktimei** buruzko azterlan aitzindaria. **Estatu mailako lehen inkesta** hura CISEk argitaratu zuen, 2004an. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan ere, **“Percepción ciudadana sobre el terrorismo y sus víctimas”** izeneko estatu mailako II. inkesta argitaratu zen, 2005ean, eta izenburu bereko III., IV. eta V. inkestak 2006an, 2007an eta 2008an argitaratu ziren, hurrenez hurren. Lan horiek guztiak gure webgunean kontsulta daitezke.

*UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren
EUSKOBAROMETRO ikertaldeak, jarraian emandako
iruzkin eta datuen bidez, 2016ko urtarrilean egindako
neguko inkestaren emaitza nagusiak aurkezten ditu.*

*Informazio hori kontsultatu eta sakondu daiteke gure
webgunean:*

www.ehu.es/euskobarometro

Aurkibidea

I.	FITXA TEKNIKOA	6
II.	EGOERA ETA KEZKA PERTSONALAK, GIZARTE ETA EKONOMIA GIROA, DEMOKRAZIAREN ONDOEZA, KONSTITUZIOARI EMANDAKO BABESA ETA ERAKUNDEENGANAKO KONFIANTZA	7
III.	GIRO POLITIKOA ETA HORREN EBALUAZIOA, GOBERNUAREN EBALUAZIOA, ALDERDIEN IBILBIDEA ETA LIDERGO POLITIKOA	23
IV.	HAUTESKUNDE OROKORRAK ETA HAIEN ONDORIOAK	37
V.	ABERTZALETASUN SENTIMENDUA ETA EUSKAL IDENTITATEA, AUTOGOBERNUA, ITUN EKONOMIKOA ETA INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERAK	53
VI.	INDARKERIAREN BILAKAERA ETA HAREKIKO JARRERAK, TERRORISMOAREN AMAIERA ETA ETA-KO PRESOAK	67

I. go Atala

2016ko URTARRILEKO EUSKOBAROMETROAREN FITXA TEKNIKOA

Egilea: UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren EUSKOBAROMETROA taldea. **Francisco José Llera Ramo** irakasleak zuzentzen du; **José M. Mata**, **Carmelo Moreno** eta **Alfredo Retortillo** irakasleek osatzen dute; eta, **Rafael Leonisio**, **Jonatan García** eta **Soňa Uhrinová** ikertzaileen laguntza teknikoa jasotzen du.

Landa lana: Banakako elkarrizketak, CPSren landa sareak etxe etxe egindakoak galdetegi egituratu baten bidez, 2016eko urtarrilaren 19tik 31ra.

Unibertsoa: Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

Laginaren tamaina: Etxeetan egindako 600 inkesta.

Laginaren diseinua: Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTATEN** metodologiaren arabera, 21 udalerritako (2 Araban, 9 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan) 30 errolda sekzioetan egin zen, eta banakoak ausaz hautatu diren, adin eta sexu kuoten arabera.

Laginaren errorea: % 95eko konfiantza mailarako eta $p = q = 0,5$ biztanleria aldakortasun gorenekotzat hartuta, laginaren errorea lagin osorako + % 4,08 da.

Igotzaileen kalkulua: Metodo interaktibo baten bidez, laginak probintzia, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira, **EUSTATEk** 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan" (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta egindako zozketatik abiatuta. Horrez gain, sekzioak aukeratzeko 2012ko Etxebizitzen Direktorioa erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.

II. Atala

Gehiengoak positiboki baloratzen du bere egoera pertsonala, 2015an, eta krisiaren aurreko aldartea berreskuratzen da.

Ezkortasuna eta mesfidantza Espainiako ekonomiarekiko, batik bat. Haatik, hobe da euskal ekonomiaren egoeraren gaineko pertzepzioaren bilakaera.

Egonkor mantentzen da ekonomia krisiaren eraginak hautematen dituen gehiengo.

Ekonomiaren bilakaeraren gaineko itxaropeneak hobera egin dute, batik bat Euskadin.

Enpleguak kezka nagusia izaten jarraitzen du.

Hobekuntza egonkortzen da, politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduari eta politikan parte hartzeko beldur giroari dagokienez.

Demokraziaren ondoezak okerrera egin du.

Espainiako Konstituzioaren aurkako jarrera aldekoari gailendu zaio.

Gizarte mugimenduek eta GKEek soilik lortu dute gainditzea, aurrekaririk ez duen erakundeekiko mesfidantza giroan.

GEHIENGOAK POSITIBOKI BALORATZEN DU BERE EGOERA PERTSONALA, 2015AN, ETA KRISIAREN AURREKO ALDARTEA BERRESKURATZEN DA

Hiru euskaldunetatik bik (% 66) uste dute 2015. urtea ona izan dela arlo pertsonalean, eta gainerakoek esperientzia negatiboren bat aipatzen dute (% 13) edo jarrera eszeptikoa dute (% 20), baikortasuna berreskuratu (+ 12) den eta ezkortasunak atzera egin duen (- 8 puntu) urte batean. Bilakaera horrek erakusten digu ekonomia krisiaren aurreko gogo aldartea berreskuratu dela (ikus 1. grafikoa).

KRISIAK EUSKAL HERRITAR GEHIENEN ONGIZATEA KALTETZEN JARRAITZEN DU, ETA EZKORTASUNA ETA MESFIDANTZA NAGUSI DIRA, ESPAINIAKO EKONOMIAREKIKO, BATIK BAT. HORREN AURREAN, HOBEA DA EUSKAL EKONOMIAREN EGOERAREN BILAKAERARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Aldi berean, Espainiako egoera ekonomikoan nagusi den (% 72) ezkortasunak atzera egin du nabarmen (- 15 puntu). Gauzak horrela, ia ez da baikorrik geratzen (% 3) eta eszeptikoak egonkortu egin dira (% 23). Halere, orain dela hiru sei hileko hasitako bideari jarraituta, euskal ekonomiaren gaineko giro ezkorra oraindik agerikoa bada ere (% 35), pertzepzio hori nabarmen ari da atzera egiten urte artekoan (- 14 puntu) baikorren alde (% 16) eta, batik bat, eszeptikoen alde (% 48) (ikus 2. grafikoa).

EGONKOR MANTENTZEN DA EKONOMIA KRISIAREN ERAGINAK HAUTEMATEN DITUEN GEHIENGO NAGUSIA

Oraindik ere, hamarretatik bederatzik (% 86) esaten dute krisiaren eraginak hautematen dituztela, urte arteko egonkortasuna handiarekin, eta, gutxi gorabehera, erdiek (% 46) intentsitate handiagoz hautematen dute oraindik. Eragin handiago hori nabarmenagoa da Bizkaian (% 50) eta Gipuzkoan (% 45), Araban baino (% 38) (ikus 3. grafikoa).

EKONOMIAREN BILAKAERAREN GAINKO ITXAROPENEK HOBERA EGIN DUTE, BATIK BAT EUSKADIRI DAGOKIONEZ

Ekonomia krisiaren bilakaerari dagokionez, eszeptikoei Euskadin (% 55) eta Espainian (% 48) nagusi izaten jarraitzen badute ere, euskal ekonomiaren urteko itxaropenen inguruko baikortasunak (% 30) modu argian gaintitzen du ezkortasuna (% 11);

Espainiako kasuan, ordea, parean daude (% 22) hobetzeko eta okerrera egiteko itxaropenak (ikus 4. grafikoa).

ENPLEGUAK KEZKA NAGUSIA IZATEN JARRAITZEN DU

Enpleguarekiko kezka (% 70) lehen lekuan jarraitzen du, urte arteko egonkortasun handiarekin. Askoz ere beherago ageri dira "gizarte desberdintasunak eta ongizatea" epigrafean bildu ditugun arazoak (% 9). Hirugarren lekuan dago egoera politikoarekiko kezka (% 8). Jarraian, egoera ekonomikoa aipatzen da (% 7), azken urtean 7 puntu atzera egin ondoren. Urrunago ageri dira zerbitzu publiko nagusien gaineko kezka, hala nola osasuna edo hezkuntza (% 3), eta etxebizitza (% 1); bestalde, indarkeria, bakea, presoak edo euskal arazoa deritzona ez dira iristen, oro har, % 1era, eta oso atzean geratzen dira, halaber, ingurumena, immigrazioa eta beste gai batzuk (ikus 5. grafikoa).

POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUN SENTIMENDUAREN HOBEKUNTZA EGONKORTU DA, SEKTORE GUZTIETAN

Azken hiru urteotan, gorabehera arin batzuk izan arren, adierazle horrek izandako aldaketa positiboaren ondoren, edonorekin politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduan aurreko seihilekoan izandako hobekuntza egonkortu da, gehiengoak partekatzen baitu (% 54) berriro ere. Era berean, aukeratutako batzuekin bakarrik hitz egin dezaketela diotenen gutxiengoa egonkortu da (% 35), baita inorekin hitz egiteko gai ez direnen gutxiengoa ere (% 11); halaber, ez da desberdintasun nabarmenik ageri sektore ideologiko edo identitarioen artean (ikus 6. grafikoa).

MANTENTZEN DA ERE POLITIKAN PARTE HARTZEKO BELDUR GIROAN IZANDAKO HOBEKUNTZA, SEKTORE GUZTIETAN

Azken seihilekoetan izandako joera positiboa berretsi da, egonkortu egin baita politikan parte hartzeko beldurrik ez duten herritarren gehiengoak (% 78). Horien aurrean, ia bosten batek beldur kroniko hori jasaten du euskal gizartean (% 17). Azken lau urteetako joera positiboa errekor historikoak, positiboak nahiz negatiboak, lortu arte-raino egonkortzeaz gainera, esanguratsuena da sektore ideologiko eta identitarioen portaera bateratua ematen ari dela (ikus 7. grafikoa).

DEMOKRAZIAREN ONDOEZAK OKERRERA EGIN DU; IA HAUTESLE GUZTIEK PARTEKATZEN DUTE

Urteko lehen seihilekoan izandako hobekuntza iragankorraren ondoren, nabarmen (+7 puntu azken seihilekoan) areagotu da, berriro ere, gure sistema demokratikoaren funtzionamenduari asegabe daudenen gehiengoa (% 81), asebeteta dagoen gutxiengoaren atzeratze korrelatiboaren aurrean (% 17); hala, Europar Batasuneko eta Espainiako batez bestekoaren azpitik jarraitzen dugu. Bai abertzaleek (% 87) bai ez-abertzaleek (% 77) asegabe daudela berretsi dute, eta bien pertzepzioak hurbildu egin dira. Demokrasiaren ondoezaren sentimendua ia hautesle guztiek partekatzen dute (PPren % 56tik EHBren % 95era). Popularren gehiengoaren iritzi aldaketa da adierazgarriena (ikus 8. grafikoa).

ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN AURKAKO JARRERA ALDEKOARI GAILENDU ZAIO


Gaur konstituzioa bozkatzeko erreferenduma berriro egingo balitz, EZETZA (% 30) gailenduko litzaioke BAIETZARI (% 25). Hala, aurreko seihilekoan izandako joera aldatetari eusten zaio, urte artekoan lehenengoak zertxobait aurreratu (+ 3 puntu) eta bigarrenengoak atzerapen korrelatiboa (- 3 puntu) izan ondoren. Aldeko iritzia, neurri batean, gehiago ageri da ez-abertzaleen artean (% 33), baina partekatzen du ere bost abertzaleetatik batek (% 17). Bestalde, orain dela hogeita hamar urteko ezezko botoak nabarmen egin du aurrera (+ 6 puntu) azken urte honetan abertzaleen artean (% 46). Aurreko hauteskunde orokorren hautesleriari erreparatua, baietzaren aldekoak C's (% 83) popularrak (% 63) eta sozialistak (% 51) dira; haatik, ezezko botoa soilik da nagusi EHBren (% 71) eta IUren (% 46) boto-emaileen artean, askoz zatitua go ageri baitira PNVren eta Podemosen boto-emaileak (ikus 9. grafikoa).

GIZARTE MUGIMENDUEK ETA GKE-EK SOILIK LORTU DUTE GAINDITZEA, AURREKARIRIK EZ DUEN ERAKUNDEEKIKO MESFIDANTZA GIROAN


Aurrekaririk ez duen mesfidantza giroan eta urte arteko egonkortasun handiarekin, azken urte hauetan sortutako herritarren protesta mugimenduek (6) eta GKEek (5,5) jaso dute konfiantza gehien Euskadin, eta bi horiek bakarrik lortu dute konfiantza eskala gainditzea, 0-10 puntu arteko balorazio batean. Lauaren gaineratik, ia gainditzea lortu dute: Eusko Jaurlaritzak (4,9) eta Eusko Legebiltzarrak (4,8), eta Ertzaintzak

(4,7), eta horien ondoren hedabideak (4,5) eta foru aldundiak (4,5) daude. Aipatutako horiek bakarrik lortu dute, bestalde, % 50etik gorako onarpen indizea. Horien atzetik daude Europar Batasuna (3,5), Polizia Nazionala eta Guardia Zibila (3,3), Erregea (3,2), sindikatuak (3,1), armada eta eliza (2,7), Konstituzio Auzitegia, NATO, enpresa erakundeak eta Diputatuen Kongresua (2,6); zerrendako azken lekuetan ageri dira alderdi politikoak (2,5), justizia administrazioa (2,4), senatua (1,9) eta Espainiako gobernuak (1,8) (ikus 10. grafikoa).

1. Grafikoa: EUSKALDUNEN EGOERA PERTSONALAREN BILAKAERA, 1993-2016




2. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA




3. Grafikoa: KRISI EKONOMIKOAREN ERAGIN PERTSONALA

Araba= 22% (+6)
Gipuzkoa= 15% (=)
Bizkaia= 10% (-5)




Araba= 38% (-20)
Gipuzkoa= 45% (+10)
Bizkaia= 50% (+1)


4. Grafikoa: ESPAINIAKO ETA EUSKADIKO EKONOMIEK URTEBETEAN IZANGO DUTEN BILAKAERAREN GAINEKO ITXAROPENA




5. Grafikoa: EUSKALDUNEN HIRU KEZKA NAGUSIAK (ERANTZUN ANIZTUNAREN BATURA)



6. Grafikoa: POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUNA




7. Grafikoa: POLITIKAN PARTE HARTZE AKTIBOA IZATEKO BELDURRA IZATEAREN PERTZEPZIOAREN BILAKAERA, 1996 ETA 2016 ARTEAN*




* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (5eko maiatza)

8. Grafikoa: EUSKALDUNEN GOGOBETETZE MAILA GURE DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIKO




9. Grafikoa: ESPAINIAKO KONSTITUIZIARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1978 ETA 2016 ARTEAN*



*Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta [15eko maiatza]

10. Grafikoa: ERAKUNDE NAGUSIEN BALORAZIOA ETA HAIENGANAKO KONFIANTZA



III. Atala

Politikarekiko interesik eza eta urruntasuna, bi adierazleetan hobekuntzak izan arren.

Espainiako eta Euskadiko egoera politikoari buruzko balorazioek hobera egiten jarraitzen dute, baina lehen kasuan giro negatiboa da nagusi, eta bigarrenengan, eszeptizismoa.

Tentsio politikoaren eta gizarte asalduraren bilakaera positiboa eten da.

Urkullu lehendakariak eta haren gobernuak aurreko notari eutsi diote, eta gehiengoan onarpena dute.

Herraldeko arazo handiak konpontzeko PNKko gobernuaren gaitasunarekiko mesfidantzak bere horretan jarraitzen du, azken urtean konfiantza berreskuratu den arren.

Soilik PNK eta Podemosek eutsi diote saldo positiboari herritarrek euskal alderdiei emandako balorazioan, eta C's da bere boto-emaleek gutxien baloratzen dutena.

Mariano Raxoiren Gobernu Popularraren kudeaketak ez du konbentzitu euskal gizartearen gehiengoa, legealdi osoan.

Soilik I. Urkullu, P. Iglesias eta A. Garzon hurbildu dira gaindituaren mailara.

POLITIKAREKIKO INTERESIK EZA ETA URRUNTASUNA, BI ADIERAZLEETAN HOBKUNTZAK IZAN ARREN

Azken bi urteetan, politikarekiko interesa 11 puntu areagotu da; dena den, oraindik ere, gutxiengoa da, eta ez da iristen hamar herritarretatik laura (% 38), interes gutxi edo batere interesik ez dutela adierazten duten ia bi herenen aurrean (% 62). Abertzaleek interes apur bat handiagoa dute (% 46) ez-abertzaleek baino (% 34). Hala ere, deigarria da euskal politikarekiko interesa (% 45) Espainiakoa baino handiagoa izatea, batez ere, abertzaleen artean (% 59 eta % 34, hurrenez hurren); izan ere, ez-abertzaleen interesik eza biekiko maila berean dago (% 64 eta % 68, hurrenez hurren) (ikus 11. grafikoa).

Demokraziaren erabateko ondoeza eta ezkortasun politikoa lotuta daude, zalantzarik gabe, politikarekiko urruntze maila handiarekin; izan ere, euskal iritzi publikoaren gehiengoak, bi urte igaro ondoren, politikarekiko urruntze sentimenduak adierazten ditu oraindik, baita sentimendu ezkorrak ere. Soilik gutxiengo batek (% 24) erakusten du politikarekiko entusiasmoa (% 1), konpromisoa (% 5) edo, besterik gabe, interesa (% 18); haatik, gainerakoek (% 76) axolagabetasun sentimenduak (% 16), asperdura (% 12), mesfidantza (% 38) eta haserrea (% 10) adierazten dute, eta guztiz negatiboak diren azken hiru horiek nagusi dira (% 60), baita egonkorrenak ere.

ESPAINIAKO ETA EUSKADIKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIOEK HOBERA EGITEN JARRAITZEN DUTE, BAINA LEHEN KASUAN GIRO NEGATIBOA DA NAGUSI, ETA BIGARRENGOAN, ESZEPTIZISMOA

Espainiako egoera politikaren gaineko ezkortasun masiboak (% 71) hobera egin du (- 8 puntu), bigarren seihilekoz jarraian. Ia ez dira baikorak geratzen (% 4) eta hamarretik bi eszeptikoak dira (% 20). Antzeko intentsitate batez, euskal politikaren gaineko balorazioak hobera egin du eta, lehenengoz, gehiago dira baikorak (% 26) ezkorak baino (% 23), seihilekoko 7 puntuko aurrerapen eta atzerapen korrelatiboen ondoren. Gainerakoan, kasu honetan, eszeptizismoak nagusi izaten jarraitzen du (% 48), azken urtean 8 puntuko atzerapena izan badu ere. Abertzaleak eta ez-abertzaleak bat datoz, berriro ere, Espainiako egoera politikoari buruz nagusi den ezkortasunean (% 74 eta % 71, hurrenez hurren), eta, oraingoa, bat datoz ere euskal egoera politikoari buruzko eszeptizismoan (% 44 eta % 49, hurrenez hurren) (ikus 12. grafikoa).

TENTSIO POLITIKOAREN ETA GIZARTE ASALDURAREN BILAKAERA POSITIBOA ETEN DA

Azken seihilekoaren egoerak apur bat okerrera egin du, baina euskal iritzi publikoaren gehiengoa baikorra ageri da oraindik (% 59), seihilekoan 4 puntuko atzerapena izan ondoren (aurreko seihilekoen aurrerapenarekin kontrastatzen duena), batik bat, gizarte asalduraren atzerakadaren gaineko pertzepzioan; abertzaleak (% 57) eta ez-abertzaleak bat datoz (% 59) neurri handi batean. Hala eta guztiz ere, eta igoera paralelo bat izanda (+4 puntu), hirutik batek baino gehiagok (% 38) egiaztatzen dute beren inguruan gizarte asaldura areagotzen ari dela alderdi politikoaren arteko zatiketa eta etengabeko liskarren ondorioz (ikus 13. grafikoa).

URKULLU LEHENDAKARIAK ETA HAREN GOBERNUAK AURREKO NOTARI EUTSI DIOTE, ETA GEHIENGOEN ONARPENA DUTE

Euskal gizartea zatituta ageri da berriro Iñigo Urkullu buru den Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa baloratzean, baina aldeko iritziak (% 34) kontrakoak (% 16) halako bi dira, dagoeneko; aurreko seihilekoaren joera aldaketaren ondoren, geldialdia nabarmena da, eta eszeptikoak edo zain egotea nahiago dutenak dira nagusi (% 46), hainbat puntu berreskuratuta (+5 puntu). Iritzi positiboak apur gehiago ematen dira abertzaleen artean (% 46), eta nagusi dira PNVren boto-emaileen artean (% 78). Beste muturrean, balorazio negatiboa, batez ere, EHBren boto-emaileen (% 36) artean nabarmentzen da (ikus 14. grafikoa).

Bestalde, ematen zaion batez besteko kalifikazioa gaintuaren gainetik dago (5,4), azken seihilekoaren nota berbera lortuta. Batez besteko kalifikazio hori PNVren boto-emaileek gaintuzten dute (6,9), baina gaintutua lortzen du ere PSE-EEren eta Podemosen boto-emaileen eta abstentzionisten artean. PPKoen artean ia gaintutzea lortzen du (4,9), eta atalase horren azpian geratzen da EHBren eta IUren boto-emaileen artean (4,4 eta 4,3, hurrenez hurren). Aldi berean, gobernuaren kudeaketa onesten duten euskaldunak (% 73) gehiago dira gaitzesten dutenak (% 24) baino, egonkortasuna handia izanik seihilekoen artean.

HERRIALDEKO ARAZO HANDIAK KONPONTZEKO PNV-KO GOBERNUAREN GAITASUNAREKIKO MESFIDANTZAK BERE HORRETAN JARRAITZEN DU, AZKEN URTEAN KONFIANTZA BERRESKURATU DEN ARREN

Gehiengoak konfiantza gutxi edo batere konfiantzarik ez du (% 54) Iñigo Urkuluren gobernuak herrialdearen arazo handiak konpontzeko duen gaitasunean; % 46k, ordea, konfiantza ematen dio. Halere, azken urtean, iritzi positiboak +15 puntu egin ditu aurrera, eta iritzi negatiboak ia paraleloan egin du atzera (-13 puntu). Ez-abertzaleen gehiengo mesfidati ageri da (% 57); abertzaleek konfiantzaren alde egin dute (% 55), aurreko zatiketaren ondoren, eta PNVren hauteslerian konfiantza da nagusi (% 89) (ikus 15. grafikoa).

SOILIK PNV-K ETA PODEMOSEK EUTSI DIOTE SALDO POSITIBOARI, HERRITARREK EUSKAL ALDERDIEI EMANDAKO BALORAZIOAN, ETA C'S DA BERE BOTO-EMAILEEK GUTXIEN BALORATZEN DUTENA

Elkarrizketatuei eskatu diegu euskal talde parlamentarioen ibilbide politikoa baloratze-ko, azken hilabeteotako jarduna kontuan hartuta, eta soilik PNVk eta Podemosek lortu dute saldo positiboa (+27 eta + 21 puntu, hurrenez hurren), iritzi positiboan (% 40 eta % 33, hurrenez hurren) eta negatiboan (% 13 eta % 12, hurrenez hurren) artean. Podemosek argi eta garbi egin du hobera, baita PNVk ere, baina modu apalago batean. Gainerako alderdien saldoa, ordea, negatiboa da; hala, EHBk -20 puntu eskuratu ditu (+% 18 eta -% 38), PSE-EEK -37 puntu (+% 10 eta -% 47), C´sek -42 puntu (+% 4 eta -% 46) eta PPK -73 puntu (+% 3 eta -% 76). Bestalde, hautesle propioen balorazio positiboak dago-kienez, C´sek du balorazio txikiena (% 50) eta PNVk, handiena (% 88); bi horien artean daude PP eta EHB (% 56), PSE-EE (% 61) eta Podemos (% 65) (ikus 16. grafikoa).

MARIANO RAXOIREN GOBERNU POPULARRAREN KUDEAKETAK EZ DU KONBENTZITU EUSKAL GIZARTEAREN GEHIENGOA, LEGEALDI OSOAN

Euskal iritzi publikoak Mariano Raxoiren gobernu popularraren aurrean orain dela lau urte erakutsitako erabateko mesfidantza bere kudeaketaren etengabeko eta erabateko gaitzespena (% 88) izatera iritsi da, legealdiaren amaieran. Soilik % 4k baloratu du positiboki, eta % 8k eszeptizismoa adierazi du, egonkortasuna handia izanik seihilekoetan eta lau urtekoan. Balorazio positiboa nagusi izan da berriro boto-emaile popularren artean (% 69), hauteskundeetan aukeraketa egin ondoren. Pentsatzekoa denez, gaitzespena izan da nagusi gainerako hautesleriaren artean (ikus 17. grafikoa).


SOILIK I. URKULLU, P. IGLESIAS ETA A. GARZON HURBILDU DIRA GAINDITUAREN MAILARA

Lider politikoen balorazioetan, seihilekoan ia nagusi izandako atzerapenetan (soilik A. Garzon hobetu da), bat eta zazpi dezimen arteko galerak izan dira, eta aurreko seihilekoen ordena zertxobait aldatu da. Ezagutza mailari dagokionez, bere horretan geratu dira batzuen eta besteen arteko aldeak. Oraingoan, Urkullu lehendakariak lehen postuari eutsi dio, ia gaudituta (4,9 azken seihilekoaren balorazioari 2 dezima kendu ondoren), 0-10 puntu arteko balorazio eskala batean eta haren ezagutza maila % 97 izanik. Haren parean geratu dira P. Iglesias (4,9), % 93ko ezagutza mailarekin eta puntuazioa egonkor mantenduta, eta A. Garzon (4,9), ezagutza maila nabarmen txikiago batekin (% 65) baina seihilekoan ia sei dezimako aurrerapena lortuta bere balorazioan. Haien atzetik nahiko hurbil daude, hurrenez hurren, A. Ortuzar (4,6 eta % 58ko ezagutza maila), A. Harraiz (4,5, 6 dezimako atzerapena eta % 33ko ezagutza maila), A. Otegi (4,1 eta % 83ko ezagutza maila), I. Mendia eta E. Maura (3,7 eta % 55eko eta % 13ko ezagutza mailak, hurrenez hurren), P. Sanchez (3,3 eta % 94ko ezagutza maila), A. Rivera (2,4 eta % 87ko ezagutza maila); zerrendaren azken lekuetan berdinduta daude 2,1 punturekin S. Sáenz de Santamaría (% 93ko ezagutza maila), A. Alonso (% 61) eta G. Maneiro (% 37), eta azken lekuan Mariano Raxoi dago (1,2 puntu eta % 98ko ezagutza maila) (ikus 18. grafikoa).


Hautesleria propioak ongien baloratutako liderren zerrendan, lehen postuetan daude S. Sáenz de Santamaría (7,9), A. Alonso (7,4), A. Otegi (7,3), P. Iglesias (7,1), A. Rivera (7), I. Urkullu (6,8), A. Garzón (6,6), H. Arraiz (6,4), A. Ortúzar (6,2), P. Sánchez (6,1) eta M. Rajoy (6); bestalde, hautesleria propioaren baloraziorik okerrrena I. Mendiak (5,7) eta E. Maurak (4,6) jaso dute.

Amaitzeko, puntuazio horiek onarpen indizearekin osatzen baditugu (gutxienez, gauditutu bat eman dutenen ehunekoak), rankingaren buru I. Urkullu dago berriro (% 61), eta P. Iglesias (% 58) dago haren atzetik, bi horiek izanik gaudituen gehiengoa lortu duten bakarrak. Haien atzean daude, hurrenez hurren, A. Otegi eta A. Garzon (% 41), A. Ortuzar eta P. Sanchez (% 32), A. Rivera eta S. Sáenz de Santamaría (% 18), H. Arraiz (% 17) eta A. Alonso (% 12); azken lekuan daude M. Raxoi (% 10), G. Maneiro (% 7) eta E. Maura (% 6). Arreta jartzen badugu azken seihilekoaren bilakaeran, onarpenaren atzerapen ia orokortua nabarmentzen da; batez ere, I. Urkulluren kasuan (-5 puntu); salbuespenak dira A. Otegi (+6 puntu), M. Raxoi (+2 puntu), P. Sánchez eta I. Mendiá (+1 puntu) eta, oso nabarmen, A. Garzón (+15 puntu) (ikus 19. grafikoa).

11. Grafikoa: POLITIKAREKIKO INTERESA ETA SENTIMENDUAK



12. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIOA



13. Grafikoa: EUSKALDUNEN PERTZEPZIOA GIZARTE ASALDURAREN GORAKADAREN INGURUAN







Gráfico 14: EGUNGO EUSKO JAURLARITZAREN BALORAZIOA ETA HAREN KUDEAKETARI JARRITAKO NOTA




15. Grafikoa: EUSKO JAURLARITZAREGANAKO KONFIANTZA HERRIALDEKO ARAZOAK KONPONTZEKO



16. Grafikoa: ALDERDI POLITIKOEN AZKEN HILABETEETAKO IBILBIDEAREN BALORAZIOA




17. Grafikoa: ORAINGO PP-REN GOBERNUAREN BILAKAERA (2012-2016)



*Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta [15eko maiatza]


18. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN BALORAZIOA EUSKADIN



% baloratzen duten elkarrizketatuen ehunekoa

Euskarabarmetza 2016ko urtarria

19. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN ONARPEN INDIZEA EUSKADIN



IV. Atala

Gehiengo ez dago gustura abenduaren 20ko hauteskundeen emaitzarekin.

Euskal iritzi publikoaren gehiengoak uste du emaitzak negatiboak direla Espainiarako, baina iritzia zatituago dago Euskadin izan dezaketen eraginari dagokionez.

Gehien-gehienek erabakia hartua zuten, hauteskunde kanpaina baino lehen.

Gehienek ezagutzen zituzten hauteskunde zundaketak, baina eragin txikia izan dute haien erabaketan.

Alderdi identifikazioa eta eskaintza bakoitzaren profil bereizgarriak konbinatzen dira, euskal hautesleriaren botoaren arrazoiak zehaztean.

Alderdiak boto-emaileak baino polarizatuago daude, eta gehiago alderdi identitarioan ideologikoan baino.

Alderdi bakoitzaren botoaren leialtasuna eta aukeren arteko aldakortasuna abenduaren 20ko hauteskundeen emaitzaren gakoak dira.

PSOE-IU-Podemos alderdiek osatutako gehiengo ezkertiarra da lehenetsitako gobernu aukera.

GEHIENGOA EZ DAGO GUSTURA ABENDUAREN 20KO HAUTESKUNDEEN EMAITZAREKIN

Orain dela lau urte geratu zen bezala, euskaldun gehienak (% 69) ez daude gustura abenduaren 20ko hauteskunde orokorren emaitzekin. Gehiengo horren barruan abertzaleak (% 65) eta ez-abertzaleak (% 73) eta hautesleria guztietako boto-emaileak ageri dira, PNVrenak (% 41) izan ezik. Horien aurrean, hamarretik hiruk baino gutxiagok adierazi dute emaitzekin gustura daudela; horien artean, batez ere, abertzaleak (% 35) daude, eta PNVren (% 57) eta, maila apalago batean, Podemosen (% 34) boto-emaileak ditugu. Balorazio horiek nabarmen bereizten dira aurretik izandako era guztietako hauteskunde prozesuen ondoren emandako balorazioetatik (ikus 20. grafikoa).

Hala ere, emaitzak ikusita, % 78k ez luke bere botoa edo abstentzioa aldatuko, % 13k abstentziora joko luke edo zuri bozkatuko luke, % 4 bozkatzera joango litzateke, % 3k botoa aldatuko luke, eta % 2k ez daki zer egingo lukeen suposizio horretan. Botoa aldatuko luketenen artean, nagusi dira C's (% 17) eta EHB (% 10) alderdien boto-emaileak.

EUSKAL IRITZI PUBLIKOAREN GEHIENGOAK USTE DU EMAITZAK NEGATIBOAK DIRELA ESPAINIARAKO, BAINA IRITZIA ZATITUAGO DAGO EUSKADIN IZAN DEZAKETEN ERAGINARI DAGOKIONEZ

Abenduaren 20ko hauteskunde emaitzek Espainiako eta Euskadiko etorkizunerako izango dituzten eragin positiboak edo negatiboak buruz galdetu diegu elkarrizketatuei, eta orain dela lau urtekoaren oso antzekoa den diagnostiko hau eskuratu dugu: Gehiengoak (% 47) Espainiaren etorkizunerako negatiboak izango direla adierazi du, heren batek baino zerbait gehiagok (% 37) positibotzat jotzen ditu, eta gainerakoek (% 16) ez dute horren gainerako iritzirik eman. Iritzi positiboa ia bakarrik Podemosen boto-emaileek (% 55) eman dute, eta, neurri apalago batean, EHBren (% 48) eta PNVren (% 41) boto-emaileek; horien aurrean, gainerako hautesleriak balorazio negatiboa egin du, abstentzionisten gutxienez (% 59) hasita PPren gehiengora (% 75), eta gehiago dira ez-abertzaleak (% 52) abertzaleak baino, zeinak askoz ere zatituago ageri baitira. Halere, Euskadiko etorkizunean izango duten eraginari erreparatu gero, iritziak askoz ere zatituago daude baikorren (% 44) –abertzaleak (% 56) eta PNVren (% 61) eta Podemosen (% 63) boto-emaileak– eta ezkorren (% 37) artean –ez-abertzaleak (% 43) eta popularren boto-emaileak (% 69), sozialistak (% 55), abstentzionistak (% 46) eta EHBrenak (% 42)– (ikus 21. grafikoa).

GEHIEN-GEHIENEK ERABAKIA HARTUA ZUTEN, HAUTESKUNDE KANPAINA BAINO LEHEN

Gure elkarrizketatuei botoa noiz erabaki zuten galdetuta, gehien-gehienek (% 72), lautik ia hiruk, hauteskunde kanpaina hasi aurretik erabakia hartua zutela adierazi dute; % 14k kanpaina egunetan erabaki zuten; % 13k hauteskunde egun berean; eta, % 1ek ez zion galdera honi erantzun. Profila orain dela lau urtekoaren ia berdina da, baina azken orduko botoa apur bat igo da (+7 puntu) (ikus 22. grafikoa).

Halere, abstentzionisten artean bereizi behar dira sekula botoa ematen ez dutenak (% 43), kanpaina baino lehen erabakitzen dutenak (% 29), eta kanpaina erabaki dutenak (% 26), 2011n gertatutakoa errepikatuz. Haien arrazoiak hauek dira: gus-tuko aukerarik ez izatea (% 38), mesfidantza (% 23), ezintasuna (% 15), asperdura (% 10), argitu gabeko zalantzak (% 6) eta haserrea adieraztea (% 4), alde batera utzita osasunari, lanari, lekualdatzei eta abarri lotutako arrazoiak. (ikus 23. grafikoa).

GEHIENEK EZAGUTZEN ZITUZTEN HAUTESKUNDE ZUNDAKETAK, BAINA ERAGIN TXIKIA IZAN DUTE BEREN ERABAKIETAN

Egungoa bezalako hauteskunde aldakortasun handiko testuinguru batean, non alderdi berriak agertu diren eta emaitzen ziurgabetasuna handia den, boto asmoari buruzko inkestek eta hauteskunde iragarpenek protagonismo handiagoa eskuratzen dute. Hori dela eta, euskal hautesleriak zundaketei buruz zuen ezagutza jakin nahi izan dugu, eta gehienek baiezko erantzuna eman dute (% 61 % 39ren aurrean). Oste-rra, ia bi heren horietatik, soilik % 8k (laginaren osoaren % 4,6) adierazi du inkesten eragina izan duela alderdi baten alde erabakia hartzeko (% 2,8), bozkatzeko (% 1,9), abstenitzeko (% 0,5) edo bere erabakia sendotzeko (% 2,5) (ikus 24. grafikoa).

ALDERDIKO IDENTIFIKAZIOA ETA ESKAINTZA BAKOITZAREN PROFIL BEREIZGARRIAK KONBINATZEN DIRA, EUSKAL HAUTESLERIAREN BOTOAREN ARRAZOIAK ZEHAZTEAN

Hautesleria bakoitzaren bozkatzeko arrazoiei dagokienez, PNVri bozkatu diote, bere hautesleria (% 56) alde batera utzita, Madrilen euskal interesak ongien defendatzen dituen alderdia delako (% 25), identitatea eta autogobernua bermatzen dituelako (% 6), bakearen alde egin duelako (% 6) eta hautagai egokiak dituelako (% 3), besteak beste. EHBri bozkatu diote, berarekin identifikatutako hautesleria leiala (% 69) alde batera utzita, indarkeria gaitzetsi duelako (% 13), independentziaren alde egi-ten duelako (% 5), bakea ekarri duelako (% 5) eta hautagai egokiak dituelako (% 2). PSE-EEri, batez ere, berarekin identifikatutako hautesleria leialak (% 78) bozkatu dio, eta, hori alde batera utzita, bozkatu diote PPK huts egin dielako (% 8), bakea eta etor-kizuna bermatzen duelako (% 6) eta hautagai egokia duelako (% 4). PPri bozkatu diote, berarekin identifikatutakoak alde batera utzita (% 50), krisia kudeatzeko gaitasuna duelako (% 44) eta hautagai egokia duelako (% 6). Amaitzeko, Podemosi bozkatu dio- te berritzeko premia dagoelako (% 44), haren ideologiarekin identifikatzen direlako (% 22), aldaketa erradikalak proposatzen dituelako (% 18), ustelkeriarik ez dutelako (% 7), erabakitzeko eskubidearen alde dagoelako (% 1) eta hautagai egokia duelako (% 1) (ikus 25. grafikoa).

ALDERDIAK BOTO-EMAIK BAINO POLARIZATUAGO DAUDE, ETA GEHIAGO ALDERDI IDENTITARIOAN IDEOLOGIKOAN BAINO

Elkarrizketatuei eskatu diegu beren burua eta alderdi politikoak ezker-eskuin es- kala ideologiko batean kokatzeko. Horrela, Euskadiko hautesleriaren eta alderdien

polarizazio ideologikoaren eredia lortu dugu. Gauzak horrela, euskal hautesleria, batez beste, zentro ezkerrean kokatzen da (3,9, 1-10 arteko eskala batean) eta muturreneko alderdien (PP eta EHB) boto-emaileen arteko tarte ideologikoa 4,2 puntukoa da (9ko maximoen gainean). Horrek herritarren % 47ko polarizazio indizea ematen digu, polarizazio zentrifugoa areagotzeko joerarekin. Haatik, hautesleriak bozkatutako alderdiei ematen dien kokapena aintzat hartzen badugu, distantzia ia bikoitza da (5,7); hortaz, alderdien polarizazio indizea % 64 da, dinamika lehiakor zentrifugoa berretsita. Hala, PP (+1,2), C's (+1,2), PNV (+0,8) eta PSE-EE (+0,4) alderdietako boto-emaileek beren alderdiak erdirago eta eskuinerago kokatzen dituzte, alderdiek eurek baino. Podemos (-0,3), IU (-0,1) eta EHB (-0,3) alderdiak, ordea, ezkererago ikusten dituzte beren boto-emaileek, eta horrek balizko aldakortasun handiagoa ekar dezake (ikus 26. grafikoa).

Aldi berean, elkarrizketatuei eskatu diegu beren burua eta alderdi politikoak abertzaletasun-espainolismo eskala identitario batean kokatzeko. Horrela, Euskadiko hautesleriaren eta alderdien polarizazio identitarioaren eredia lortu dugu. Gauzak horrela, euskal hautesleria batez beste abertzaletasun moderatuan kokatzen da (4,3, 1-10 arteko eskala batean) eta muturreneko alderdien (PP eta EHB) boto-emaileen arteko tarte identitarioa 6,4 puntukoa da (9ko maximoen gainean). Horrek herritarren % 71ko polarizazio indizea ematen digu, nabarmen handiagoa, beraz, arlo ideologikoan jasotakoa baino. Haatik, hautesleriak bozkatutako alderdiei ematen dien kokapena aintzat hartzen badugu, distantzia handiagoa da (7,4); hortaz, alderdien polarizazio indizea % 71 da, dinamika lehiakor zentrifugo are handiagoa berretsita. Hala, PP (+0,7), C's (+0,8), PSE-EE (+0,2) eta Podemos (+0,6) alderdietako boto-emaileek beren alderdiei espainolismo maila handiagoa ematen diete, alderdiek eurek beren buruari emandakoa baino; bestalde, PNV (-0,6), IU (-0,4) eta EHB (-0,3) alderdietako boto-emaileek beren alderdiei abertzaletasun handiagoa ematen diete, eta horrek ere balizko aldakortasun handiagoa ekar dezake (ikus 27. grafikoa).

ALDERDI BAKOITZAREN BOTOAREN LEIALTASUNA ETA AUKEREN ARTEKO ALDAKORTASUNA ABENDUAREN ZOKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAREN GAKOAK DIRA

2011ko hauteskunde orokorren eta 2015ekoen arteko boto transferentzia aitortuen matrizearen azterketak ahalbidetzen digu jakitea, gutxi-asko, 2011ko boto-emaile biziak nora joan diren eta 2015eko hauteskundeetan aukera politiko bakoitzaren babesak nola osatzen diren. Kontuan hartu beharko dugu ezin dugula zehaztasunez jakin izandako boto aldaketak; izan ere, soilik dugu hautesle bizien boto adierazia (eta ez boto guztia), laginaren errorearen marjinak areagotzen joaten dira lagina hautesleriaren arabera zatitu ahala eta, batez ere, ehunekoak gutxitzen dira (ikus 28. grafikoa).

2011ko boto-emaileen norakoari eta 2015ko hautesleriaren jatorriari buruzko bi grafikoak kontuan hartzen baditugu, lehenik eta behin, hautesleria bakoitzaren leial-


tasun maila desberdina egiaztatu dezakegu; hala, leialtasun txikiena UI (% 22) eta Amaiur (% 58) alderdietan ematen da; handiena, PNVn (% 81) eta PPN (% 67), eta tartean PSE-EE (% 60) geratzen da.

Podemosen 316.000 botoen jatorriaren espektroa zabala da: abstentzionistak (% 16), IUren boto-emaile ohiak (% 13), Amaiurrenak (% 20), sozialistak (% 14), PNVrenak (% 7) eta boto-emaile berriak (% 6), batez ere. PNVren 301.000 botoen jatorria (20.000 inguru galdu arren), bere aurreko botoaz gainera (% 87), espektro politiko osoan dago, baina ezin du konpentsatu galera osoa, zeina abstentziara, batez ere, eta gainerako alderdietara bideratu baita. EHBren 183.000 botoei dagokienez, 100.000 boto inguru galdu ditu, 2011ko botoekin alderatuta (hautesleriaren heren bat baino gehiago), eta boto horien jatorria bere aurreko botoa da (% 89) eta gainerako aukeretatik jasotakoa. Horien bidez ez dira konpentsatzen abstentziara, Podemosera (% 32) eta PNVra joandako botoak. PSE-EEren 161.000 botoak (90.000 boto baino gehiago galduta) bere aurreko bototik (% 92) eta PPTik datoz. Horien bidez ez dira konpentsatzen, batez ere, Podemosera (% 28) eta abstentziara joandako botoak. PPren 141.000 botoak (30.000 boto inguru galdu ondoren) bere aurreko bototik (% 88) eta PNVTik datoz. Horien bidez ez dira konpentsatzen abstentziara, PSE-EEra, PNVra, C´sera edo Podemosera joandako botoak. C´sek lortutako ia 50.000 botoak, berriz, abstentziotik (% 33), PPTik, PNVTik eta boto-emaile berrietatik datoz. IUren 35.000 botoak bere aurreko hautesleriatik (% 54) eta PSE-EEtik datoz. Nolanahi ere, horien bidez ez dira konpentsatzen Podemosera (% 70) eta abstentziara joandako botoak. Bestalde, 65.000 hautesle berrien artean, gehienek Podemos (% 41) eta abstentzioa (% 27 inguru) hautatu dute, baita PNV eta C´s ere. Amaitzeko, aurrekoaz gainera (% 55), alderdi guztietako boto-emaileek jo dute abstentziara.


PSOE-IU-PODEMOS ALDERDIEK OSATUTAKO GEHIENGO EZKERTIARRA DA EUSKAL GIZARTEAK LEHENETSITAKO GOBERNU AUKERA

Abenduaren 20ko hauteskunde orokorren ondoren gehiengo gobernu bat eratze-ko zailtasunak ikusita eta orain dela hiru urteko hauteskunde autonomikoetan edo iazko udal eta foru hauteskundeetan gertatu bezala, Espainian gobernu bat osatzeko lehenesten dituzten aukerei buruz galdetu diegu euskaldunei. Aukeren pluraltasun horren erdian, argi nabarmentzen da PSOE, IU eta Podemos gehiengo ezkertiarren aukera, hamar elkarrizketatuetatik lauk lehenesten baitute (% 39) (ikus 29. grafikoa).


20. Grafikoa: HAUTESKUNDEN EMAITZEKIKO GOGOBETASUNA ETA BALIZKO ERABAKIA EMAITZAK JAKIN IZAN BALIRA




21. Grafikoa: HAUTESKUNDEEN ERAGINAK EUSKADI ETA ESPAINIARRAKO



22. Grafikoa: BOTOA NOIZ ERABAKITZEN DEN




23. Grafikoa: NOIZ ERABAKITZEN DEN ABSTENTIZIOA ETA ABSTENITZKEO ARRAZIOIAK




24. Grafikoa: HAUTESKUNDE ZUNDAKETEN EZAGUTZA ETA HAIENGANDIK JASOTAKO ERAGINA





25. Grafikoa: 2015EKO HAUTESKUNDE OROKORRETAN BOZKATZEKO ARRAZOIAK




26. Grafikoa: NON KOKATZEN DITUZTEN BOTO-EMAILEEK EUSKAL ALDERDIAK ETA BEREN BURUA, EZKER/ESKUIN ESKALA BATEAN (15EKO HAUTESKUNDE OROKORRAK)






28. Grafikoa: BOTO TRANSFERENTZIAK (2011-2015)



29. Grafikoa: ESPAINIARAKO LEHENETSITAKO GOBERNU FORMULA



V. Atala

Euskal gizarteak abertzale eta ez-abertzaleen artean zatituta jarraitzen du, baina azken horiek dira nagusi.

Espainiar eta euskal identitate bikoitza berresten da, euskalduntasuna argi nabarmenduz.

Autogobernuaren lehentasunek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean.

Gehiengo handi bat gustura dago Estatuarekin.

Gernikako Estatuak gehiengoaren babes esplizitua berreskuratzen du.

Euskal gizarteak oso modu positiboan baloratzen ditu autogobernuaren emaitza ekonomikoak, baina zatituta ageri da hura Itun sistemaren bidez finantzatzeko formularen eraginaren inguruan.

Independentzia nahiek atzera egin dute, eta gutxiengo dira oraindik, ziurgabetasun etorkizun batean.

EZ-ABERTZALEEK NAGUSITASUNARI EUTSI DIOTE EUSKAL GIZARTEAN, ZATIKETA KRONIKO BATEN ERDIAN

Abertzale (% 39) eta ez-abertzaleen (% 54) arteko zatiketa kroniko baten erdian, bi taldeen arteko aldeak areagotu egin dira berriri azken sei hilekoan; hala, lehenengoek -7 puntuko atzerapena izan dute sei hilekoan eta bigarrenengoek +4 puntuko aurrerapen korrelatiboa. Definizio ez-abertzalea nagusi da probintzia guztietan. Gutxienekoa Gipuzkoan dugu (% 49), gero Bizkaia dago (% 53), eta gehiengoa Araban (% 70). Hautesleriaren arabera, gehiengo ez-abertzaleen definizioan Podemosen boto-emaielen % 62 da gutxienekoa eta sozialisten % 96 gehienekoa, tartean egonda abstentzionisten % 72, IUren % 73 eta PPren % 94. Aitzitik, sentimendu abertzalea PNVren % 70eko gutxienekoaren eta EHBren % 81eko gehienekoaren artean dabil (ikus 30. grafikoa).

EUSKAL ETA ESPAINIAR IDENTITATEEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA NAGUSIA DA ORAINDIK, EUSKALDUNTASUNA ARGI NABARMENDUZ

Seihilekoan egonkortasun handia erakutsita, bost euskaldunetatik hiruk (% 61) euskal eta espainiar identitateen arteko bateragarritasunari eusten diote. Horren barruan, euskalduna-espainiarra aukera da nagusi (% 36), eta horri dagoeneko eza-guna den euskalduntasun sentimendua gehitzen zaio (% 23), zeina, edonola ere, espainismoaren (% 2) oso gainetik baitago. Bestalde, muturreko espainismoa soilik % 6ra iristen da, eta, bien bitartean, euskaldunen heren batek baino apur bat gutxiagok (% 30) soilik euskaldun identitatea dutela adierazi dute, sei hilekoan -5 puntuko atzerapen txikia eduki ondoren (ikus 31. grafikoa).

Euskaldun eta espainiar sentitzen direnen identitateen bateragarritasunari dago-kionez, gutxienekoa EHBren boto-emaielen % 19 da, eta gehienekoa C's alderdiko boto-emaielen % 100 (tartean dira PPren % 50, PNVren % 57, IUren % 64, abstentzionisten % 65, PSE-EEren % 69 eta Podemosen % 72); nolahi ere, euskalduntasuna argi nabarmentzen da abertzaleen, Podemosen eta IUren artean, eta orekatuagoa da, berriz, autonomisten artean. Soilik euskaldun sentitzen direnen eskusibotasunak EHBren hautesleria biltzen jarraitzen du (% 81), eta garrantzitsua da PNVren boto-emaielen artean (% 40), azken hauen artean zatiketa handiagoa egon arren.

Bien bitartean, espainiar sentimendua sozialisten eta, batez ere, popularren artean nabarmentzen da.

EUSKAL GIZARTEAK ZATITURIK JARRAITZEN DU AUTONOMISMOAREN, FEDERALISMOAREN ETA INDEPENDENTISMOAREN ARTEAN

Estatuaren lurraldea antolatzeko formari dagokionez seihilekoen arteko egonkortasuna handia den testuinguru batean, euskaldunak zatiturik daude oraindik autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean. Euskaldunen gehiengo nagusia oraingo formula autonomikoaren (% 32) eta balizko federalismo baten artean (% 34) dabil, azken hori seihileko honetan apur bat indartu bada ere (+5 puntu). Egungo eredu autonomikoa aukera nagusia da hautesleria sozialistaren barruan (% 57) eta maila apalagoan ageri da popularren (% 44) eta abstentzionisten artean (% 41); garrantzitsua da, halaber, PNVren (% 29) eta Podemosen (% 28) boto-emaileen artean eta, oro har, ez-abertzaleen artean (% 43). Autogobernua formula federal batez garatzea aukera nagusia da IUren boto-emaileen artean (% 64), eta maila apalagoan ageri da Podemosen (% 47) eta PNVren (% 43) boto-emaileen artean, baina babes garrantzitsua dauka sozialisten (% 33) eta abstentzionisten artean (% 30). Aukera horrek antzeko babes du abertzaleen eta ez-abertzaleen artean (heren bat inguru). Nolanahi ere, bi formula integrazionista horiek gehiengo nagusia osatzen dute oraindik (% 66), hiru euskaldunetarik bi horren alde baitaude (ikus 32. grafikoa).

Formula deszentralizatzaile eta integrazionista horien aurrean, autodeterminazio eta konfederazio formulen independentismoa euskaldunen laurden batek inguru (% 23) babesten du, Gipuzkoan (% 26) batez ere. Aukera horrek babes handia dauka EHBren (% 87) boto-emaileen artean, eta babes nabarmena, oro har, abertzaleen artean (% 44), gutxiengoa izan arren PNVren (% 20) eta Podemosen (% 20) boto-emaileen artean. Beste muturrean, euskaldunen % 6 zentralismoaren aldekoak dira, arbuizate edo lekukotasun adierazpen gisa, eta horren barruan, batez ere, popularren eta sozialisten boto-emaileen gutxiengo bat biltzen da.

GEHIENGO HANDI BAT NAHIKO ASEBETETA DAGO ORAINDIK ESTATUTUAREKIN, AREAGOTU DAITEKEEN AUTOGOBERNU BATEN ALDEKO NAHIAK ASETZEN JARRAITZEN BAITU

Euskal herritarren hiru laurdenek baino gehiagok (% 76) osatutako gehiengoa, neurri batean, asebeteta dago Estatuarekin; asegabeak, berriz, ez dira iristen bostetik

bat izatera (% 16); seihilekoan, lehenengoek +7 puntu egin dute aurrera, eta bigarrenekoek apur bat gutxiago egin dute atzera. Hala eta guztiz ere, asebateak kritizismoaren (% 46) eta baikortasunaren artean (% 30) dabilta, lehenengoek seihilekoen aurrera egin badute ere gainerakoen kalterako. Abertzaleak nagusiki kritizismoan (% 55) kokatzen dira, eta ez-abertzaleak, berriz, erabateko gogobetetasunaren (% 41) eta kritizismoaren (% 37) artean dabilta. Hautesleriari erreparatuta, kritizismoaren aldeko jarrera nagusia PNVren (% 62) boto-emaileen artean ematen da, eta, neurri apalago batean, Podemosen (% 47) eta IUren (% 46) boto-emaileen artean; bestalde, asegabeenak EHBren (% 58) boto-emaileak dira, eta asebateenak, sozialistak (% 45) eta popularrak (% 44); nolahi ere, nahiko zatituak ageri dira guztiak, dauden aukeren artean (ikus 33. grafikoa).

Asegabetasun erlatiboa eta gaitzespena oso zehaztuta geratzen dira berriro, euskal herritarrei oraingo autogobernuaren estatusaren alternatibei buruz galdetzen zaie-nean; izan ere, bostetik batek ez du nahi aldaketarik (% 20), hori baino handiagoa den multzo batek transferentziak osatzea nahi du (% 24), antzeko multzo bat autogobernua aldatzearen eta zabaltzearen alde dago (% 29), eta gutxiengo txiki batek (% 17) haustura subiranista baten alde egiten du, argi eta garbi; seihilekoan izandako aldaketak, oro har, ez dira esanguratsuak izan. Lehenengo bi aukeretan popularrak eta sozialisten lehentasunak biltzen dira; PNVren eta Podemosen boto-emaileak zatituagoak ageri dira, baina autogobernua indartzearen aldekoak dira nagusi; eta, EHBren barruan subiranotasunaren aukera da nagusi (% 73).

GERNIKAKO ESTATUTUAK EUSKAL HERRITAR GEHIENGOEN BABES ESPLIZITUA BERRESKURATZEN DU

Gernikako Estatutuaren onarpena berretsi zuen erreferenduma egin zenetik 36 urte igaro direnean, gaur erreferendum hori berriro egingo balitz Baiezko (% 42) botoak urrun geratuko litzateke 1979an erroldaren gehiengoak (% 53) emandako baiezko bototik, urte arteko + 12 puntuko susperraldiarekin. Aldeko iritzia hori ia berdina mantentzen da abertzaleen (% 47) eta ez-abertzaleen artean (% 39). Aldiz, orain dela 30 urteko ezezko botoa (% 3) gainditu egingo litzateke (% 16 eta -4 puntuko urte arteko atzerapena) orduko abstentzismoaren kargura (1979an abstentzioa % 41 izan zen). Zatiketa hautesleria guztien ezaugarria da, baina baiezkoa nagusi da denetan, EHBn izan ezik, zatituago ageri dena baina ezetzaren alde egiten duena (% 42) (ikus 34. grafikoa).

EUSKAL GIZARTEAK OSO MODU POSITIBOAN BALORATZEN DITU AUTOGOBERNUAREN EMAITZA EKONOMIKOAK, BAINA ZATITUTA AGERI DA HURA ITUN SISTEMAREN BIDEZ FINANTZATZEKO FORMULAREN ERAGINEN INGURUAN

Azken bolada honetan euskal probintzien ekonomia itunaren aurkako iritziak entzun dira, lurralde eta tratu desberdintasunak sortzen dituen pribilegiotzat jotzen delako. Aurreko seihilekoan galdetu genien gure elkarrizketatuei ea ados zeuden oraingo itun sistema finantzaketa autonomiko arruntaren sistemaz ordezkatzeko proposamenarekin, eta ezezko erantzuna izan zen nagusi argi eta garbi (% 58). Oraingoan bi galdera berri egin ditugu: bat, autogobernuaren azken hogeita bost urtean zerbitzu publikoek, ongizate materialak eta euskal ekonomiak izandako bilakaerari buruz; eta, bestea, autogobernua itun sistemaren bidez finantzatzeari buruz.

Lehen galderan aipatutako autogobernuaren emaitzen ebaluazioari dagokionez, gure elkarrizketatuei galdetu diegu, 11 puntuko eskala baten gainean, non 0 erabateko porrota den eta 10, erabateko arrakasta. Lortutako batez bestekoa 6 izan da, eta % 87k arrakasta indizea (5 edo gehiago puntuatzen dutenen ehunekoa), eta hautesleria guztietan gainditu da (EHBren 5,3tik PNVren 6,8ra) (ikus 35. grafikoa).

Halere, eskatu dugunean euskal autogobernua itun sistemaren bidezko finantzaketan lortutako emaitzak baloratzeko gainerako autonomia erkidegoekin alderatuta, euskal gizartea zatitua ageri da, ia zati berdinetan, onuragarria ikusten dutenen (% 28), kaltegarria ikusten dutenen (% 25) eta jarrera neutroa dutenen (% 29) artean. Multzo handi batek ez du gaiari buruzko iritzirik eman (% 18). EHBn iritzi negatiboa da nagusi (% 58), eta gainerako hautesleriak askoz ere zatituago daude.


INDEPENDENTZIA NAHIEK ATZERA EGIN DUTE, ETA GUTXIENGO DIRA ORAINDIK EUSKAL GIZARTEAN, ZIURGABETASUN ETORKIZUN BATEAN

Euskal autogobernuaren formula politikoa zein den alde batera utzita, euskal herritarren laurden batek gutxi gorabehera (% 24) independentzia nahi dutela adierazten dute, seihilekoan -6 puntuko atzerapena izan ondoren. Hori adierazi dute EHBren boto-emaille gehienek (% 79) eta abertzale gehienek (% 50), oro har, eta maila apalagoan PNVren boto-emailleek (% 27). Horien aurrean, euskal gizartearen gehiengoak (% 63) dio independentzia nahia txikia duela (% 22) edo ez duela independentziarik


nahi (% 41); iritzi hori ematen da, batez ere, ez-abertzaleen artean (% 80) eta alderdi autonomisten boto-emaileen artean (hamarretik bederatzik baino gehiagok), baina multzo horren barruan daude ere PNVren (% 61) eta Podemosen (% 63) boto-emaile eta abstentzionista gehienak (% 65) (ikus 36. grafikoa).

Euskadi independente baten hipotesiaren aurrean, bizi baldintzen bilakaerari buruzko euskal gizartearen itxaropenak oso zatituta ageri dira: alde batean, hobe biziko ginatekeela uste dutenak daude (% 22), eta, bestean, kontrakoa pentsatzen dutenak eta okerrago egongo ginatekeela uste dutenak (% 35). Sei hilekoan bigarrenek egin dute aurrera, eta lehenengok atzerakada korrelatiboa izan dute. Ia beste hainbestek uste dute gauzak ez liratekeela aldatuko (% 16) edo ez dakite zehazki zeren alde egin (% 27). Baikorrenak EHBren (% 69) boto-emaileak dira berriro, eta, oro har, abertzaleak (% 45). Bestalde, ezkorrenak popularrak (% 75) eta sozialistak (% 74) dira, eta, oro har, ez-abertzaleak (% 53). Amaitzeko, baikorren eta ezkorren arteko zatiketa askoz ere nabariagoa da PNVren eta Podemosen boto-emaileen artean.


30. Grafikoa: EUSKALDUNEN SENTIMENDU ABERTZALEA




31. Grafikoa: EUSKALDUNEN IDENTITATE NAZIONAL SUBJEKTIBOA




32. Grafikoa: ESTATU EREDUARI BURUZKO ALTERNATIBAK



33. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUAREKIKO GOGOBETASUNA ETA EGUNGO EGOERA KONPONTZEKO ALTERNATIBAK




34. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1979 ETA 2016 ARTEAN*




*Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (15eko maiatza)

Euskobarómetroa 2016ko urtarria (2015eko maiatza)

35. Grafikoa: AZKEN 25 URTEETAKO AUTOGOBERNUAREN EMAITZEN BALORAZIOA ETA EKONOMIA ITUNAREN ALDERAKETA GAINERAKO AUTONOMIA ESTATUTUEN FINANTZA ERREDUREKIN



36. Grafikoa: EUSKALDUNEN INDEPENDENTZIA NAHIAK ETA BIZI ITXAROPENAK INDEPENDENTZIAREN ONDOREN



VI. Atala

ETAren aurkako gehiengoaren erabateko gaitzespena errekor historikoan dago, abertzaleen barruko eraldaketa gertatzen ari den honetan.

Indarkeriarekin amaitzeko ETAren borondatearen aurrean euskal gizarteak erakutsitako konfiantzak gora egin du, baina zatiketa ageri da oraindik arau demokratikoak onartzeko Ezker Abertzalearen borondateari dagokionez

Euskal gizartea terrorismoko delituak dituzten presoak barkatzearen eta gizarteratzearen alde dago

Zatiketa ageri da berriro ETAK presoak erabiltzeari edo ez erabiltzeari buruzko iritzietan

Ezker Abertzaleko buruzagiek agintari judizialekin lortutako akordioak babesten ditu, baina zatituta dago ETako presoen egoerari irtenbide indibiduala edo kolektiboa emateari dagokionez.

EUSKAL GIZARTEAREN GEHIENGOAK ETA-REN AURKA ERAKUTSITAKO ERABATEKO GAITZESPENA ERREKOR HISTORIKOAN DAGO, ABERTZALEEN BARRUKO ERALDAKETA GERTATZEN ARI DEN HONETAN

Euskal gizartearen gehiengoaren (% 65) erabateko gaitzespena ETaren aurrean apur bat indartu da (+10 puntu aurten), eta errekor historikoan jarraitzen du. Jarrera hori nagusia da probintzia guztietan (Bizkaiko % 63ren eta Arabako % 67ren artean), abertzaleen artean (% 54) eta, batez ere, ez-abertzaleen artean (% 75); jarrera nagusia da, halaber, hautesleria demokratiko ia guztietan, Podemos eta IUren % 64ko gutxienetik PPren % 94ko gehiengora, eta salbuespen bakarra EHB da (ikus 37. grafikoa).

Nolabait babesten dutenen iritziek, dela ETaren indarkeria lehen justifikatuta zegoela eta orain ez uste dutenenak (% 11) dela helburuak bai baina indarkeria metodoak partekatzen ez dituztenenak (% 10), nabarmen egin dute atzera urte artekoan (-6 puntu), joera hori nabarmena izanik abertzale sentitzen direnen artean (% 29) eta haien hautesleen artean (PNVren % 19ko gutxienekotik EHBren % 51ko gehiengora, tartean Podemosen % 23 egonda).

Halere, estatistikoki garrantzi gutxiago izan arren, deigarria da ia erabat desagertu dela erabateko babes esplizitua eta osoa (% 1), baina EHBren boto-emileen artean ere (% 5), eta 3 puntura murriztu da akatsak onartuta ETaren justifikazio kritikoa egin dutenen multzoa, soilik EHBren boto-emileen % 15ek mantentzen baitute. Gaur egun, ematen du Ezker Abertzalearen gehiengoa, EHBn biltzen dena, helburuak partekatzen baina indarkeria metodoak gaitzesten dituztenen artean kokatzen dela edo nolabait babesten dutenen artean (% 11), eta horiei batu behar zaie, berriro ere, erabateko gaitzespena adierazi dutenak (% 23), zeinak, gainerakoan, aldeari eusten diote erabateko babesa adierazten dutenen aurrean, hautesleria horrek azken urteotan izandako pixkanakako moderazioaren ondorioz eta azken hauteskunde orokorretan boto-emileen heren bat galdu ondoren. Horrek guztiak argi berresten ditu indarkeria behin betiko utzi aurreko urteetan ETak eta Ezker Abertzaleak izandako babesaren galera eta horren arrazoiak, bai eta horren berreskurapena 2011n hasitako ziklo berrian edo orain dela gutxi izandako ahultzea ere.

INDARKERIAREKIN AMAITZEKO ETA-REN BORONDATEAREN AURREAN EUSKAL GIZARTEAK ERAKUTSITAKO KONFIANTZAK GORA EGIN DU, BAINA ZATIKETA AGERI DA ORAINDIK ARAU DEMOKRATIKOAK ONARTZEKO EZKER ABERTZALEAREN BORONDATEARI DAGOKIONEZ

Azken sei hilekoan, ETak eta haren gizarte inguruak indarkeriarekin amaitzeko erakutsitako jarreraren zintotasunarenganako konfiantzak aurrera egin du (+5 puntu). Konfiantza gehien abertzaleek (% 65) eta EHBren (% 87), Podemosen (% 59), IUren (% 64) eta PNVren (% 55) boto-emileek erakutsi dute, eta ez-abertzaleak (% 41) eta gainerako guztiak mesfidati ageri dira oraindik (sozialisten % 39ko gutxienekotik

PPren % 88ko gehienekora); azken jarrera hori euskal gizartearen ia heren batek du oraindik (% 30), seihilekoan -9 puntu atzera egin ondoren (ikus 38. grafikoa).

Halere, arau demokratikoak onartzeko Ezker Abertzalearen borondateari buruzko iritziak zatiturik daude (% 42 eta % 37) oraindik, eta oso negatiboa izan den urte baten ondoren, nagusi zen iritzi positiboak gainbehera egin du. Konfiantzaren batez beste-ko % 42ren barruan, Gipuzkoa (% 57) eta abertzaleak (% 61) nabarmentzen dira, baita EHBren (% 92), Podemosen (% 49) eta PNVren (% 47) hautesleriak ere. Mesfidantza, berriz, ez-abertzaleen (% 52) eta gainerako hauteslerien artean ageri da (PSE-EEren % 43tik PPren % 88ra).

EUSKAL GIZARTEA TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOK BARKATZEAREN ETA GIZARTERATZEAREN ALDE DAGO

Azken urtean joera aldaketa nabarmena izanda, gizartearen gehiengoa (% 46) damua erakusten eta armak uzteko erabakia adierazten duten terrorista guztiei gizarteratzeko neurrien onurak ematearen alde dago, seihilekoan -4 puntuko atzerapena izan badu ere. Horien aurrean, lautik batek baino gehiagok (% 28) –seihilekoan +7 puntuko aurrerapen nabarmena izan ondoren– uste dute neurri horiek soilik aplikatuz dakizkiekeela hilketa deliturik ez dituztenei; bestalde, bostetik ia bat (% 19) ez dago barkatzeko prest eta uste du batzuek nahiz besteek zigor osoak bete behar dituztela (ikus 39. grafikoa).

Abertzaleen artean nagusi dira baldintzarik gabeko barkamenaren aldekoak (% 68), eta ez-abertzaleak oso zatituta daude gai horren inguruan, baina, oraingoan, baldintzapeko barkamenaren aldekoak izan dira nagusi (% 34). Horrez gain, EHBren (% 81), Podemosen (% 50), IUren (% 55) eta PNVren (% 51) boto-emaileak garbi ageri dira baldintzarik gabeko barkamenaren alde, eta gainerakoen artean zatiketa askoz ere handiagoa da baldintzapeko barkamenaren eta zigorrak osorik betetzearen artean, non PPren gehiengoa (% 50) biltzen den berriro ere.

ZATIKETA AGERI DA BERRIRO ETA-K PRESOK ERABILTZEARI EDO EZ ERABILTZEARI BURUZKO IRITZIETAN

ETAko presoen gaiak kalean eta iritzi publikoan hartutako protagonismoa dela eta, non iritzi kontrajarriak ematen diren, elkarriketatuei galdetu diegu ea ados dauden ETAk presoak bere asmoak gauzatzeko eta irauteko bahitu gisa erabiltzen dituela diotenen iritziarekin. Emaitzetan oso zatitua ageri dira iritziak (hiru zati ia berdinetan). Hala, % 31 iritzi horren aldekoak dira, % 31 horren kontra daude, eta % 38k ez du horri buruzko iritzirik eman. Lehenengo multzoan nagusi dira PPren (% 56), IUren (% 55) eta PSE-EEren (% 45) boto-emaileak eta, neurri apalago batean, PNVren


eta Podemosen (% 33) boto-emaileak eta, oro har, ez-abertzaleak (% 35); bigarrenengo multzoan, EHBren boto-emaileak dira nagusi (% 65) eta, neurri apalago batean, Podemos (% 33) eta PNV (% 27) eta, oro har, abertzaleak (% 43) (kus 40. grafikoa).

EUSKAL GIZARTEAK EZKER ABERTZALEKO BURUZAGIEK AGINTARI JUDIZIALEKIN LORTUTAKO AKORDIOAK BABESTEN DITU, BAINA ZATITUTA DAGO ETA-KO PRESOEN EGOERARI IRTENBIDE INDIBIDUALA EDO KOLEKTIBOIA EMATEARI DAGOKIONEZ


Presoen gaiaren inguruan, hainbat adierazpen izan dira presoenguztatu inguru politiko hurbilaren barruan. Zehazki, orain dela gutxi ETAKo kide izateagatik prozesatutako Ezker Abertzalearen buruzagi eta militanten talde handi batek agintari judizialekin eta akusatzaileekin negoziatu du, eta balizko kondenaren murrizketa lortu du, erakundearen beren militantzia onartzearen, indarkeriaren erabilera gaitzestearen eta biktimei egindako mina eta hura konpontzeko jarrera erakustearen truke. Horren harira, gure elkarrizketatuei galdetu diegu ekimen horren balorazioa egiteko, eta gehiengoak, hirutik elkarrizketatuetatik bik, ekimena babestu du (% 67), eta gutxiengo bat (% 9), hamarretik bat, horren aurka agertu da; laurdenak (% 24) zalantzak dituela adierazi du. Balorazio positiboak euskal gizartearen adostasuna erakusten duela da garrantzitsua; izan ere, intentsitate gehiago edo gutxiagorekin, sektore ideologiko eta politiko guztien gehiengoaren arteko akordioa adierazten du (ikus 41. grafikoa).

Halere, Ezker Abertzalearen hainbat buruzagiek antzeko jarrera izateko eskatu diete ETAKo presoei, espetxetik ateratzeko edo, gutxienez, haien zigorrak murrizteko. Horren harira, espetxe legea eta konponbide indibidualak onartzeko proposatu diete. Ezker Abertzaleko beste sektore batzuek, ordea, irtenbide negoziatua eta globala eskatzen jarraitzen dute, amnistiaren aldarrikapena barne. Zentzu horretan, gure elkarrizketatuei aukera baten edo bestearen aldeko iritzia emateko eskatu diegu, eta iritzia oso zatitua jaso dugu irtenbide indibiduala babesten dutenen (% 38) irtenbide globalaren alde daudenen (% 25) eta iritzia ematen ez dutenen artean (% 37). Podemosen (% 54) gehiengoak garbi egiten du lehenengoaren alde, eta EHBren gehiengoak (% 66), berriz, bigarrenengoaren alde. Horiek alde batera utzita, ordea, gainerako hautesleria zatituta ageri da, baina aldeko iritziak dira nagusi denetan, intentsitate handiagotik txikiagora.


37. Grafikoa: EUSKALDUNEN JARRERA ETA -REKIKO



38. Grafikoa: ETA-REN BORONDATEA INDARKERIARI AMAIERA EMATEKO ETA EZKER ABERTZALEARENA ARAU DEMOKRATIKOAK ONARTZEKO




39. Grafikoa: EUSKALDUNEN IRITZIA TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOEN GIZARTERATZEARI BURUZ



40. Grafikoa: ETA-K PRESOK BERE PLANETARAKO BAHITU GISA ERABILTZEN DITUELA BAIEZTAPENAREKIKO ADOSTASUN MAILA


PP=56%
 IU=55%
 PSE-EE=45%
 PNV=33%
 Podemos=33%

Abe.=25%
 Ez abe.= 35%



EHB=65%
 Podemos=33%
 PNV=27%

Abe.=43%
 Ez abe.= 21%



A series of horizontal dotted lines for writing, consisting of 20 lines spaced evenly down the page.